

Kritika zaleak

Gizon artean bizi gara-ta, danok gagoz —nok ukatu?— esituta legez. Danok ditugu geure esubideak eta bete-bearrak. Zuk eta nik, Nik neure eskubideak ditut, eta zuk zeureak; nik neure bete-bearrak ditut, eta zuk zeureak. Bai batzuk bai besteak, nireak baizen estimagarriak dira zureak. Au, jakiña, geure izate muiñean ondo josita erabilli bear genduke ta, orduan, askoz obeto alkar eroan eta biziko giñake.

Eskubideak eta bete-bearrak tartetuta, nastean aurkitzen dira, besarkada ezin askatuan baturik. Betebearra, izan be, eskubidearen ondoren ezta besterik eta eskubidea bete-bearraren garaipen.

Eritxi-emoteari gagokiozala, esaterako, eskubidea bakarrik ez daukie erritarrak eritxia emon eta kritika egiteko; baita bearra be. Au da: erritarrak beartuak dagoz kritika egitera. Ta eskubide orri eragozpenak bear bada, oztopoak naiz koskak jarten baldin ba'yakoz, baztertutzat joten dau erritarrak bere burua, bere-bere dauan erritikat jaurtia dala iruditzen yako.

Bere barru-eritxia adieraztea gailazoten dautson legea, beraz, gi-

zartearen kontrako legetzat agertzen yako, indar kaltegarri bat dala uste dau, gero ta aziago egiñaz doan zaldar gaizto bat. Zelan sartu da berea gizartean? Ez al dakarkigu ondoren gorria? Ta ni gizarte beren zatiaz. Narri-az-piko txori kaltekor orri uxatzeko alegiak erabiltzen ditut. Bearturik nago.

Gauza bitxiak daukaguz emen, Erisimera (omertate) iarrri dauanak diñõ: «Ez da kritika dagoz, baita baikorra da onã, aurrera daragianat beren bitorra, dana ondatu bai dagoz, leislariaren eritxi, eber dala gogon, baiña oso kaltegarri baturik. Zergaitik orri? Lege-begiralea, norbere eritxi zaintzailera, eritxi ta kritika ezkerrean, guztiz latz eta gogor agertzen dira, ez baita ona bere uste.

Baiña, ezkerrean bakar zer artezak ete dira? Ala gure adimen txepel edo-ta gure boroak sortuak? Norentzako da gurea bat ezker, eta norentzako baikor? Nok ez dau olako begiralea kritiku soiltzat joten? Bere burua, ta besterik ez; ez ete da egia? Ta au al da kritika leiala? Ez. Emen auxe da-

kusgu bakar-bakarrik: taiu ortako begiralea jauntxo bat, diktadore bat dala; bere eritxia gaillen, besteena ezer ez. Eta zuzentasuna? Ta giza-legea? «Ni goi, i be» esanik, zenbat bider zapaldu oi doguzan! Gogora leoiaren ipuiña.

Onakoak aspergarri izan oi yaku. Bere eritxiko ez diran guztiak darda gainean erabilten ditu, ba-ba-garbitzailleak aleak baean lez. Itsuturik dago; ez dau berea besterik ikusten. Gaixol! Ta zelako botakeriak esan oi ditun! Ez dau iñõ eritxen ondo zigortu barik. Ez dau orduan ezagutzen ez anairik, ez giza-legerik. Eroa dirudi.

Sarri, gainera, maxlatzen dau eta argitan egiten; aurrea bultza, guztion lurra dan zelaietan bekoz loko, illunetan haiña. Beretzat on deritxon unetik hota oi ditu bere samin-erazi, okada ta duntadik. Eta, askoz txarragoa dana, au agintariak be legez egin daroe. Arriskutsua benetan guztiona dau eskubidea batek beretzak bakarrik artzea.

Ondo jokatu ezker, ona da kritika gizartea garbitu ta jasoteko. Geldi dagoan potzuan ba-dakigu zer jazoten dan: ura usteldu; egoki da, beraz, ur orri noizik bein estintzea, edo-ta potzu orri noizik bein eragitea. Olan gure gizartean be. Bakotzak dauan eskubidea era-

billirik, gizarteko onak eta txarrak, akatsak eta birtuteak, agirian jar-tea, zuzen eta bidezkoa danik ezin daikegu uka. Estadu batek, erriak eta agintariak, ontzat emon bear dau kritika eragille auxe; baita Eleizeak be. Orrela loi askotik garbitu oi dira erakunde oneik. Ona da, bai, egitadak kritikatzeta, liburu ta idatzia buruz eritxi zeatza emotea; eskubide au, egia esateko, kultura plakatzen jabe diran gizarte guztiak niretzakotzat daukie.

Historia kondaira gurek dagigu. Ta Aurrera, aurrera joatea da; iritzi on. Ta au dogu iñõ be aitzu izan behar onak, paxadaakoak, iritzi onak, historiaren zer gurea da. Ta daturatzen orri laguntza gure daturatzen. Baita on, batur batur joana gurea obea. Baita on, batur ta mullera iritzi onak, batur batur joana. Baita batur batur joana ez ebe-laku, bertan bera, porrot egiñik ber beratu yaku, gizañdi asko dirala.

Beraz, beraz, egiako kritika edozein gaitaz. Ez gero norbere kasketaldiak oretua, aurrera bultz daragiana baizen. Auxe dogu, beti be, naiz ta geure eritxi ta gogoaldiaren kontrako izan, txaloka artu bear doguna.